



Ebazpena, 2008ko maiatzaren 28koa, Hezkuntza sailburuordearena. Honen bidez, dei egiten da futboleko eta areto-futboleko kirol-teknikari eta goi-mailako kirol-teknikari titulazio ofizialak eskuratzeko araubide bereziko irakaskuntzetan sartzeko probak egiteko.

Abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuak (BOE, 1998ko urtarrilaren 23koa) araubide bereziko irakaskuntzatzat jo zituen kirol-teknikari eta goi-mailako kirol-teknikari titulazioak ateratzekoak. Gero, martxoaren 3ko 320/2000 Errege Dekretuak (BOE, martxoaren 29koa) futbol eta areto-futboleko espezialitateetako kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluak ezarri zituen, baita gutxieneko irakaskuntzak eta horietan sartzeko probak eta baldintzak ere.

Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren 8. artikuluan 3. paragrafoa eta 1913/1997 Errege Dekretuaren 19. artikulua aintzat hartuta, ekainaren 29ko 129/2004 Dekretuak (abenduaren 2ko EHAA) curriculumak ezarri dizkie futbol eta areto-futboleko espezialitateetako kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluei, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan.

Martxoaren 3ko 320/2000 Errege Dekretuak bere 7. artikuluan ezarri ditu titulu horiei dagozkien sarbide- eta promozio-betebeharrak. Izan ere, Araubide Bereziko irakaskuntzako tituluak izaki, tituluari dagozkion betebeharrak akademikoak bete behar dira sartzeko, baita dagokion proba espezifikoa gainditu ere. Hala ere, eskatutako titulazio akademikorik gabekoek ere izango dute sartzea, orobat goi-mailako kirolariak, eta urritasunak edo ezintasunak egiaztatzen dituztenek, baldin eta aipatu Errege Dekretuaren 8. artikuluko sarrera-baldintzak betetzen badituzte.

Ebazpen honen bitartez, beraz, kirol-irakaskuntza horietan sartzeko probaren deialdia eta erregulazioa egiten dira, 2009-2010 ikasturterako.

Horiek horrela, honako hau,

EBATZI DUT:

Lehena.- Xedea eta aplikazio-eremua.

Futboleko eta areto-futboleko kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluei dagozkien 2009. urteko sarbide-probak egiteko deia egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan.

Bigarrena.- Hartzaileak.



1.- Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleak.

- **Erdiko maila**, espezialitateetako edozeinetan:
 - a) **Lehen mailara sartzeko**
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua edo ondorio akademikoetarako baliokidea den beste titulu bat behar da, baita bosgarren puntuari ezarritako berariazko sarbide proba gainditzea ere.
 - b) **Bigarren mailara sartzeko**
Dagokion espezialitateko lehen maila gainditu izanaren ziurtagiria behar da.
- **Goi-maila**, espezialitateetako edozeinetan:
 - Batxiler titulua edo ondorio akademikoetarako baliokidea den beste titulu bat behar da,
 - kirol-teknikari titulua, berriz, dagokion kirol mota edo espezialitateetarako.
 - Egiaztatu egin beharko da futboleko kirol-teknikariaren titulua lortu eta gero entrenatzaile titular izan dela gutxienez denboraldi batean kategoria erregional gorenean, gazteen liga nazionalan, kategoria erregional arruntean edo gazte-, kadete, haur, kimu edo benjaminen kategoriako lehiaketetan.
Espainiako Futbol-federazioak edo dagokion autonomia-federazioak eman beharko du ziurtagiria.
Espainiako Futbol-federazioak edo autonomia-federazioek sustatutako lehiaketak baino ez dira kontuan hartuko.
Denboraldia osotzat jotzeko, sei hilabetean edo 183 egun jarraituan aritu izana ziurtatu beharko da.

2.- Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleak.

Aurreko paragrafoak ezarritakoa gorabehera, adin-baldintzak bete eta Ebazpen honetako Zazpigarren puntuari zehaztutako heldutasun-proba gainditzen duten ikasleak ere izango dute irakaskuntzotan sartzea.

Erdiko Mailan sartzeko, gutxienez 17 urte eduki edo bete beharko dira proba egiten den urte naturalean, eta proba bat gainditu beharko da, ikasleak egiaztatu dezan badituela dagokion heziketa-zikloko irakaskuntzak atarramentu onarekin egiteko behar diren gaitasunak. Proba horrek bi zati izango ditu: proba orokorra eta berariazko proba.

Goi-mailan sartzeko, berriz, 19 urte eduki edo bete beharko dira proba egiten den urte naturalean; dagokion modalitateko kirol-teknikari titulua izan beharko da, esperientzia egiaztatu Ebazpen honen 2.1. puntuari agertzen den bezala, eta proba bat gainditu beharko da, ikasleak egiaztatu dezan badituela irakaskuntzak atarramentu onarekin egiteko behar diren gaitasunak.

**Hirugarrena.- Goi-mailako kirolariak sartzeko proba eta betebeharretatik salbustea.**

1.- Baldintza akademikoak bete edo heldutasun-proba gainditu duten goi-mailako kirolariak salbuetsita egongo dira berriazko probak egitetik.

Goi-mailako kirolari egoera egiaztatzeko, Kirolen Goi Kontseiluak emandako banako ziurtagiria beharko da.

2.- Onura honen iraunaldia goi-mailako kirolari izaera galdu ondorengo bost urteetara ere luzatuko da, non eta galtze hori uztailearen 13ko 971/2007 Errege Dekretuak, goi-mailako kirolariei buruzkoak, bere 15. artikulua b, c, d eta e idatz-zatietan ezarritakoaren ondorio ez den.

Laugarrena.- Sarbide-proba egokituak urritasunak edo ezintasunak egiaztatzen dituztenentzako.

1.- Pertsona urritu edo ezinduek eskabideak egiten badituzte futbol eta areto-futboleko espezialitateetako kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluei dagozkien irakaskuntzetan sartzeko, erakunde eskumendunek luzatutako minusbaliotasun-ziurtagiriak ere aurkeztu beharko dituzte.

2.- Abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuaren 11. artikulua xedatu duena betez, eta hala egokituz gero, hezkuntza-organo eskumendunak epaimahaia izendatuko du, izangaien urritasun-maila edo mugak aztertu, eta futbol eta areto-futboleko espezialitateetako irakaskuntzak atarramentu onez egin ote ditzaket baloratzeko. Epaimahai horrek bidezko iritziz gero, egokitu egingo ditu aipatu egoeran dauden izangaiek gainditu beharreko berriazko sarbide-probak; nolana ere, errespetatu egingo dira esandako Errege Dekretuan ezarritako helburuen funtsa eta futbol eta areto-futboleko espezialitateetako kirol-teknikariei eta goi-mailako kirol-teknikariei dagozkien gutxieneko irakaskuntzak.

Bosgarrena.- Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleentzako berriazko proben edukia. Kirol-teknikarien irakaskuntzetarako sarbidea.

Futbol espezialitateetako kirol-teknikarien irakaskuntzetara sartzeko berriazko probak eta kirol-betebeharrak.

1.- Helburua eta egitura.

Futbol espezialitateetako teknikarien irakaskuntzetara sartzeko proben helburua da izangaiek frogatzea egoera fisiko egokia eta berriazko trebezia aski dituztela, aukeratu duten prestakuntzari atarramentu ona ateratzeko beste alegia.

Probek bi zati izango dituzte:

- Lehena komuna izango da bi espezialitateetarako, eta izangaiaren egoera fisikoa baloratzeko izango du helburu.



- Proben bigarren zatia berariazkoa izango da espezialitate bakoitzerako, eta helburutzat hartuko du dagozkion espezialitateko berariazko eta funtsezko trebeziak baloratzea izangaiarengan.

2.- Probak

Izangaiek aukera bakarra izango dute ariketa bakoitza egiteko, eta bakarka arituko dira, jendaurrean egingo den zozketaz ezarriko den parte-hartzeko ordenari jarraiki.

2.1 Lehen zatia. Komuna bi espezialitateetarako:

- Helburua: Egoera fisikoaren balorazioa.

- Edukia:

a) **Translazio-abiadura**. 50 metroko distantzia korritu, lur lauan, zoru berdinduarekin eta trazadura zuzenarekin; gizonetzkoek, 8 segundo baino gutxiagoan, eta emakumezkoek 8,5 segundo baino gutxiagoan.

b) **Erresistentzia organikoa**. 2.000 metroko distantzia ibili lur lauan, ordokian, zoru berdinduarekin; gizonetzkoek, 10 minutu baino gutxiagoan, eta emakumezkoek 12 minutu baino gutxiagoan.

c) Beheko gorputz-adarren **muskulu hedatzaile nagusien potentzia**. «Jauzi bertikala» egitea; gizonetzkoek, gutxienez 45 zentimetrokoa, eta emakumezkoek, berriz, gutxienez 35 zentimetrokoa.

d) **Gorputz-enborraren eta beheko gorputz-adarren zalutasun globala**. Oinutsik edo ortozik, hankak flexometro baten gainean, gorputza aurrerantz makurtu, bultzadarik gabe, eta bi besoak batera hankapetik pasatu eta ahalik eta gehien eramán atzerantz. Gizonetzkoak 30 zentimetrora iritsi behar dira, gutxienez, eta emakumezkoak, berriz, 35 zentimetrora.

e) **Muskulu-potentzia orokorra eta hura hezur-palanketan aplikatzea**. Zutik eta geldi; baloi medizinala aurrerantz jaurti bi eskuez: 6 metro baino urrutiago bidali behar da. Gizonetzkoentzako baloi medizinala 5 kilogramokoa izango da, eta emakumezkoentzako, berriz, 3 kilogramokoa.

- **Ebaluazioa**: Probaren lehen zatia gaingidutzat joko da izangaia osorik eta kasu bakoitzerako ezarritako baldintzetan eginda duenean.

2.2 Bigarren zatia, berariazkoa, futbol irakaskuntzetara sartzekoa:

- **Helburua**: Berariazko trebetasunak baloratzea.

- **Edukia**: Izangaia zirkuitu tekniko bat egin behar du erregelamenduzko neurriak dituen futbol-zelai batean, espezialitateko erregelamenduzko baloiak erabilita. Atal honetan adierazten diren ariketak izango ditu zirkuituak, eta hemen ezarritako hurrenkeran egingo dira.

Ariketak egiteko edo hasteko lekua I. ERANSKINEan zehazten dena izango da (1. grafikoa):

a) Pase luze bat.

b) «Baloi eramán» hankaz, lasterka, zuzen.



- c) «Baloia eraman» hankaz, lasterka, sigi-sagan, bata bestetik 2 metrora dauden 4 oztopo gaindituz.
- d) Aterako jaurtiketa bat egin areaz kanpotik.
- e) Baloia ate-hondotik jaso eta «baloia goitik eraman» (trebetasun dinamikoa) area-erpinerraino.
- f) Doitasun-jaurtiketa egin alboko marraren gainean dagoen ate txiki batera (2 m × 1 m).
- g) Lagun batek pasatutako baloia «kontrolatu», «hormarena» egin (1-2) eta jarraian «baloia eraman» hankaz, noranzkoa aldatuz.
- h) Baloia bultzatu, 50 zentimetroko altuera duen hesi baten azpitik sartzeko, eta salto egin hesi gainetik. Ondoren, eta gelditu gabe, baloia hankaz bultzatu, aurreko hesitik 5 metrora dagoen 50 zentimetroko altuerako beste hesi baten gainetik igaro dadin, eta hesiaren azpitik pasatu.
- i) Aterako hiru jaurtiketa areaz kanpotik.

- Ebaluazioa:

- a) Ebaluatzaile bakoitzak letik 10era baloratuko ditu ariketa guztiak.
- b) Proben bigarren zatiaren azken ebaluazioa egiteko, ebaluatzaileen balorazioen batez bestekoa egingo da, eta gainditutzat joko da ateratako batez bestekoa 5 puntu edo gehiago bada, eta emandako denbora 3 minututik gorakoa ez bada.

2.3 Bigarren zatia, berariazkoa, areto-futboleko irakaskuntzetan sartzekoa:

- Helburua: Areto-futboleko trebetasun tekniko nagusiak gauzatzeko gaitasun-maila baloratzea.

- Edukia: Izangaiak zirkuitu tekniko bat egin behar du erregelamenduzko neurriak dituen areto-futboleko zelai batean, espezialitateko erregelamenduzko baloia erabilita. Atal honetan adierazten diren ariketak izango ditu zirkuituak, eta hemen ezarritako hurrenkeran egingo dira. Ariketak egiteko edo hasteko lekua **I. ERANSKIN**ean zehazten dena izango da (2. grafikoa):

- a) Pase bat.
- b) «Baloia eraman» hankaz, lasterka, zuzen.
- c) «Baloia eraman» hankaz, lasterka, sigi-sagan, bata bestetik 2 metrora dauden 4 oztopo gaindituz.
- d) Aterako jaurtiketa bat egin areaz kanpotik.
- e) Baloia ate-hondotik jaso eta «baloia goitik eraman» (trebetasun dinamikoa) area-erpinerraino.
- f) Doitasun-jaurtiketa egin alboko marraren gainean dagoen ate txiki batera (2 m × 1 m).
- g) Lagun batek pasatutako baloia «kontrolatu», «hormarena» egin (1-2) eta jarraian «baloia eraman» hankaz, noranzkoa aldatuz.
- h) Baloia bultzatu, 50 zentimetroko altuera duen hesi baten azpitik sartzeko, eta salto egin hesi gainetik. Ondoren, eta gelditu gabe, baloia hankaz bultzatu, aurreko hesitik 5 metrora dagoen 50 zentimetroko altuerako beste hesi baten gainetik igaro dadin, eta hesiaren azpitik pasatu.
- i) Aterako hiru jaurtiketa areaz kanpotik.

**- Ebaluazioa:**

- a) Ebaluatzaile bakoitzak letik 10era baloratuko ditu ariketa guztiak.
- b) Proben bigarren zatiaren azken ebaluazioa egiteko, ebaluatzaileen balorazioen batez bestekoa egingo da, eta gaindituztat joko da ateratako batez bestekoa 5 puntu edo gehiago bada, eta emandako denbora 3 minututik gorakoa ez bada.

Seigarrena.- Azken ebaluazioa

Sarbide-proben kalifikazioa «gai / ez gai» baino ez da izango. Sarbide-probaren bi zatiak gainditu beharko dituzte izangaiek gai kalifikazioa ateratzeko.

Zazpigarrena.- Kirol-teknikarietarako eta goi-mailako kirol-teknikarietarako sarbide-proba baldintza akademikorik betetzen ez duten ikasleentzat.

- Norentzat: Heldutasun-proba honetan parte hartu ahal izango dute Azaroaren 8ko 1363/2007 Errege Dekretuak, kirol-teknikarien tituluak lortzeko irakaspenak araubide berezikotzat ematen dituenak, kirol-irakaspenetan sartzeko ezarritako baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleek.

Aipaturiko Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean aurreikusitako behin-behineko aldian emango diren kirol-prestakuntzetan sartu nahi dutenek ere parte hartu ahal izango dute.

- Erdi mailako proba egitetik salbuestea. Honako hauek ez dute proba egin beharko:

Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarrera-proba gainditu izana egiaztatzen dutenek.

Lanbide-heziketako erdiko mailara sartzeko proba gainditu dutenek.

- Goi-mailako proba egitetik salbuetsiko dira:

Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarrera-proba gainditu izana egiaztatzen dutenak.

Lanbide-heziketako goi-mailan sartzeko proba komuna gainditzen dutenak.

- Helburua: irakaskuntza hauek atarramentu onez egiteko ezagutza eta trebetasun aski badela frogatzea.

- Edukia: proba bat, bi zati dituen: zati orokorra eta berariazko zatia.

A) Zati orokorra. Bi ariketa izango ditu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarrizko ezagutzei lotuko zaizkienak, ondoko esparruetakoak.



1.- Lehen ariketa: gizarte- eta hizkuntza-esparrua.

Ondorengo lau irakasgaietatik hiruri dagozkien galderak aukeratuko ditu ikasleak: Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Hizkuntza (Ingelesa edo Frantsesa) eta Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia. Gehienez ere, 2 ordu eta 15 minutu emango dira.

2.- Bigarren ariketa: zientzia- eta teknologia-esparrua.

Ikasleak ondoko hiru irakasgaietako biri buruzko galderei erantzungo die: Matematika, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika. Gehienez ere, 2 ordu eta 15 minutu emango dira.

Zati hau kalifikatzeko, bi ariketen kalifikazioen batez besteko aritmetikoa egingo da, eta 5 edo gehiagoko puntuazioa ateratzen bada, proba gainditutzat joko da. Probaren emaitza GAI/EZ GAI terminoekin adieraziko da. Ikasleak, zati hau gaindituz gero, irakaskuntza hauetara sartzeko probaren berariazko zatia egin ahal izango du.

B) Berariazko zatia: Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleentzako berariazko probaren egitura, eduki eta ebaluazio-irizpide berak izango ditu.

- Azken ebaluazioa:

Zatietako bat gainditzen ez bada, proba gainditu gabe geratuko da. Probaren guztizko kalifikazioa "ez gai" bada, inola ere ez da emango probaren zatiren bat gainditu izanaren ziurtagiririk.

Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleak goi-mailan sartzeko proba.

Batxiler titulua edo horren baliokiderik ez duten izangaiek idatziz egin beharko dute goi-mailan sartzeko proba. Proba horren iraupena epaimahaiak erabakiko du eta Batxilergoko curriculumaren gaien buruzkoa izango da. Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura, Atzerriko Hizkuntza eta Historia eta Filosofiari buruzko edukiak eskainiko zaizkie ikasleei. Azterketan, ikasleek gai horietatik hiru aukeratuko dituzte. Hautatutako gaiko, aukera bi eskainiko zaizkie ikasleei, eta biotako bat garatu beharko dute.

Zortzigarrena.- Berariazko probak egin eta berariazko betebeharrak baloratzeko epaimahaia.

1.- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatutako epaimahaia arduratuko da probak antolatu, kontrolatu eta ebaluatzeaz.

2.- Epaimahaiburu bat eta lau epaimahaikide izango ditu, horietako bat idazkari arituko dena.

3.- Epaimahaiburuak bermatuko du sarbide-probak Ebazpen honek ezarritakoaren arabera egingo direla.

4.- Idazkariak egingo ditu proben aktak, baita proben garapena Ebazpen honek ezarritakoaren arabera egin dela ziurtatu ere. Epaimahaiburua ez dagoenean, haren ordezkoa izango da.

5.- Ondoko titulazioa beharko dute sarbide-probetan ebaluatzaile arituko direnek:

Egoera fisikoaren balorazioa:



- Goi-mailako kirol-teknikaria edo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatuaren titulua edo horren baliokidetzat edota horrekin homologatutzat jotako beste edozein egiaztatzen dutenak.

Berariazko trebezien balorazioa:

- Goi-mailako kirol-teknikaria dagokion espezialitatean.

Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleentzako probak:

- Bigarren Hezkuntzako irakasleak, probako ariketen espezialitatekoak.

6.- Epaimahaiak proposatuta, beharrezko aholkulariak izendatuko dira, dagokion espezialitatekoak.

Bederatzigarrena.- Sarbide-probarako izena ematea. Epea eta tokiak.

1.- Ikasleak heziketa-zikloa non egin nahi duen, ikastetxe horretan emango du izena sarbide-proba egiteko. Horretarako, inprimaki egokia erabiliko du, erdi-mailarako edo goi-mailarako hurrenez hurren, eta ikastetxeko idazkaritzan eskuratuko diote.

2.- Proba euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango da. Izena emateko orrian adieraziko du ikasleak bere aukera.

3.- Era berean, izena emateko orrian adierazi beharko dute ikasleek sarbide-proban garatuko dituzten ikasgaiak.

4.- Ikastetxeek izena emateko orriaren kopietako bat bidali beharko dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara.

5.- Proba egiteko aretora sartzen den ikasleak bere burua identifikatu beharko du baliozko egiaztagiriarekin. Aurkezten ez duena kanporatuta izango da.

6.- Hona probarako izena emateko epea eta tokiak:

IKASLEAK	IZENA EMATEKO EPEA	IZENA EMATEKO TOKIAK
Baldintza akademikoak beteta zein bete gabe	Uztailaren letik irailaren 9era (biak barne)	Hezkuntza Sailak baimendutako Kirol Irakaskuntzetarako Ikastetxeak: BIZKAIA KIIB (Cosme Etxebarrieta, 5 -1 BILBAO) ARABA KIIB (Amadeo García de Salazar Plaza VITORIA-GASTEIZ) GIPUZKOA KIIB (Anoeta, 5 - DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN)

Hamargarrena.- Sarbide-proba egiteko toki-egunak.

Tokia: Behar bezalako aurrerapenaz emango da horren berri, Hezkuntza Sailaren web orrian: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net eta www.eff-fvf.org

Sarbide-proba egiteko datak.



A) Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleak.

- Zati orokorra:
 - Eguna: irailaren 11a. Arratsaldeko 15:30etan
- Berariazko zatia:
 - Eguna: irailaren 21tik aurrera, 16:00etatik 20:00etara.

B) Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleak:

- Eguna: irailaren 21tik aurrera, 16:00etatik 20:00etara.

Hamaikagarrena.- Probaren emaitzak argitara ematea eta erreklamazioak aurkeztea.

1.- Behin-behineko eta behin betiko emaitzak argitara emateko tokiak: probarako izena eman den ikastetxeko iragarki-ohola eta Hezkuntzako web orrialdea.

2.- Behin-behineko emaitzak argitaratu eta 48 orduko epearen barruan egin ahal izango erreklamazioa ikasleak. Erreklamazioa epaimahaiburuari aurkeztuko zaio, Kirol Irakaskuntzetarako ikastetxe baimenduen idazkaritzaren bitartez.

Hamabigarrena.- Probaren balioa eta ziurtagpena.

Proba gainditu duen ikasleak horren ziurtagiria eman diezaiotela eskatu ahal izango du, eta ziurtagiriak Estatu osorako balioko du. Inola ere ez da emango proben zatietako bat gainditu izanaren ziurtagiririk.

Berariazko proba gainditu izanak hemezortzi hilabeterako balioko du, probak amaitzen direnetik kontatzen hasita.


Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 28a
HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Izpta.: María Antonia Ozcariz Rubio



I. ERANSKINA

1. IRUDIA




2. IRUDIA



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza
Ikasketa Antolamendua

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Dirección de Innovación Educativa
Ordenación Académica





HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza
Ikasketa Antolamendua

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Dirección de Innovación Educativa
Ordenación Académica

II. ERANSKINA

SARBIDE-PROBAN IZENA EMATEKO ESKABIDEA.
KIROL-TEKNIKARIEN HEZIKETA ZIKLOAK

(Ikasleak betetzeko)		IKASTURTEA/.....	
IZENA EMATEA ZEIN IKASTETXETAN EGITEN DEN			
KIROL-TEKNIKARIEN HEZIKETA-ZIKLOA:	FÚTBOLA	ARETO-FUTBOLA	
IKASLEAREN DATUAK			
Abizenak:.....		Izena:.....	
.....			
Jaiotza-data:.....		NAN/NAN:	
.....			
Helbidea (kalea, zk.).....		
PK/Herria		Lurraldea	
.....			
Telefonia.....		
Proba egiteko tokia: Bilbao Donostia-San Sebastián Vitoria-Gasteiz			
Proba egiteko hizkuntza:		Gaztelania <input type="checkbox"/>	Euskara <input type="checkbox"/>

ESKARIA: onar nazatelaeko KIROL TEKNIKARIRAKO BERARIAZKO SARBIDE PROBAN.

Aurkeztutako agiriak:

a - DBHko graduatu titulua

b - Ondorio akademikoetarako DBHko graduatu tituluaren baliokidea den beste bat (Adierazi zein)

ESKARIA: onar nazatela BALDINTZA AKADEMIKOAK BETETZEN EZ DITUZTENENTZAKO SARBIDE PROBAN,

.....eko KIROL-TEKNIKARIRAKO. Aurkeztutako agiriak:

Gutxienez 17 urte izatea proba egiten den urte naturalean.

Adierazi zer irakasgai garatuko dituzun gizarte- eta hezkuntza-esparruan:

Euskara eta Literatura Gaztelania eta Literatura Gizarte Z., Geografia eta Historia

Atzerri-hizkuntza: Frantsesa

Ingelesa

ESKARIA: SARBIDE-PROBA EGITETIK SALBUESTEA, eta ondoko agiriak aurkezten ditut horretarako:

Goi-mailako kirolari naizela ziurtatzeko agiria, Kirolen Goi Kontseiluak emana.

ESKARIA: onar nazatelaeko KIROL TEKNIKARIRAKO SARBIDE PROBAN, urritu edo ezinduentzako EGOKITUAN. Aurkeztutako agiriak:

Minusbaliotasun-ziurtagiria,k emana.

Bestelako agiriak:



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza
Ikasketa Antolamendua

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Dirección de Innovación Educativa
Ordenación Académica

Eskatzailearen sinadura:

(Ikastetxeak betetzeko)

Eskabide-zenbakia:

Sarrera-data:

Idazkariak, , **hauxe ZIURTATZEN DU:** goian
izenpetzen duen ikasleak adierazitako agiriak KIROLO TEKNIKARIrako sarbide-proba
egiteko eskabide honi erantsi zaizkiola.

.....n., 200_(e)koaren a(e)an.

IDAZKARIA

Ikastetxearen zigilua:



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza
Ikasketa Antolamendua

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Dirección de Innovación Educativa
Ordenación Académica

ANEXO II

SARBIDE-PROBAN IZENA EMATEKO ESKABIDEA. GOI-MAILAKO KIROL-TEKNIKARIEN HEZIKETA ZIKLOAK	
IKASKEAK BETETZEKO	IKASTURTEA...../.....
Izena-ematea zein ikastetxetan egiten den	
Abizenak.....	Izena.....
Jaiotze-data.....	NAN.....
Helbidea (Kalea, zk.)	
PK /herria.....	Lurralde.....
Tel.....	e-maila.....

ESKARIA onar nazatela Goi Mailako Kirol Teknikarirako berariazko sarbide proban	
Batxilergo titulua edo ondorio akademikoetarako baliokidea den beste bat	
Futbol Kirol Teknikari titulua	
Egiaztatu egin beharko da futboleko kirol-teknikariaren titulua lortu eta gero entrenatzaile titular izan dela gutxienez denboraldi batean EBAZPEN 2.1. puntuan agertzen den bezala.	

ESKARIA: onar nazatela BALDINTZA AKADEMIKOAK BETETZEN EZ DITUZTENENTZAKO SARBIDE PROBAN, dokumentazio hau azalduz:	
Egiaztatu egin beharko da futboleko kirol-teknikariaren titulua lortu eta gero entrenatzaile titular izan dela gutxienez denboraldi batean EBAZPEN 2.1. puntuan agertzen den bezala	
Gutxienez 19 urte izatea proba egiten den urte naturalean	
Azterketaren igasgai aukeratuak (3 bakarrik)	
Gastelania eta Literatura	
Euskera eta Literatura	
Historia	
Filosofia	
Atzerri-hizkuntza	

Lehentasunaren arabera marka itzazu ze zentru nahiago duzun zuk aukeratutakoan plazarik ez balego	
Araba	
Bizkaia	
Gipuzkoa	

Eskatzailearen sinadura

IKASTETXEAK BETETZEKO	
Sarrera- Data	
Idazkariak, hauxe ziurtatzen du: goian izenpetzen duen ikasleak adierazitako agiriak GOI mailako kirol teknikarirako sarbide-proba egiteko eskabide honi erantsi zaizkiola.	
.....n, 200 eko.....aren a.....(e)an	
Ikastetxeak	Ikastetxearen zigilua

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**
Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza
Ikasketa Antolamendua

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Dirección de Innovación Educativa
Ordenación Académica